

JON GEREDIAGA

BI LIBURUTARAKO HITZAURRE BAT:

HITZ POETIKOA ETA ARRAZOI POETIKOA

METAKOADERNOAK

LOS CUADERNOS DE CREACIÓN DE AZKUNA ZENTROA - ALHÓNDIGA BILBAO
AZKUNA ZENTROA - ALHÓNDIGA BILBAOKO SORKUNTZA-KOADERNOAK



«wozu Dichter in dürftiger Zeit?»
(«Zertarako poetak beharraldian?») —Hölderlin—

Bi liburu eskaini dizkiogu gizakiaren ahalmen sortzaileari, guk *poiesi* deitu dugun giza ahalmen unibertsalari. *Poiesi* grekotik datorren hitza da: «sorkuntza» esan nahi du, edo «produkzioa». Platonek honela definitzen du: «gogoan hartzen dugun edozer gauza ez-izatek izatera dakarren kausa». Are gehiago, Platonen *Banketea*-n, Diotima izeneko maistra misterioitsuak hilezkortasunarekin ere lotzen du gizakiaren *poiesia* edo sortzeko ahalmena. Hau ez da, noski, hilezkortasunerako bideak arakatzeko leku egokia, baina prest gaude onartzeko gizakiaren ahalmen sortzailea unibertsala eta bizirauteko ezinbestekoa dela. Hau da, gizaki orok behar duela, neurri batean edo bestean, bizitzak dakartzan estimulu eta egoera berrietara moldatzeko ahalmen sortzailea. Beraz, gizaki guztiok daukagu gauza material edo ez-material berriak sortzeko talentua, neurri batean edo bestean. Hala ere, gauza jakina da: askotan, lantzen edo erabiltzen ez den talentua pobre geratu ohi da, edo ez da behar bezain beste garatzen. Intuizio horrek bultzatuta, gu bi lanbide edo bokazio berezietara hurbildu gara gizakiaren ahalmen sortzaileaz zerbait esan ahal izateko: alde batetik, aurreko saiakera batean, poeten jardunera hurbildu ginen, kantura, hitz poetikoaren inguruko zerbait esateko asmoz. Eta bide horren abiapuntu bezala definizio hau erabili genuen: *hitz poetikoa gauza batentzat izen egokia aurkitzen duen hitza da*. Kasik «*izen sakratu*» bat, Hölderlin handiaren hitzak erabiltzearren.

Gauzak horrela, halako hitz boteretsu batek gauza bat izendatzearekin batera, gauza baten *izana* ere sortu eta

osatzen du. Esan nahi baita: izen egoki batek izatasuna ere ematen dio izendatzen, ahoskatzen eta kasik ukitzen duenari, hau da, hitz poetiko hori agertu baino lehenago izengabea zen gauza orori. Horrela ikusita, egia poetikoa dirudi esaera zaharrak dioenak: «*izena duen guztia omen da*». Ba, hain zuzen, tesi hori defendatuz eta garatuz idatzi genuen sormenari buruzko gure lehenbiziko liburua: ***Izena eta Izana. Hitz poetikoari buruz***. Bide malkartsu eta labainkor hura ibiltzeko, hitz poetikoaren zenbait maisu eta maistren urratsei jarraitu genien, eta baita poeta zaharren hitz poetikoak erabili ere, gure intuizioak indartzeko. Parnaso zabal horretatik, bereziki nabarmendu nahi izan genuen Friedrich Hölderlin poetaren izena. Besteak beste, haren zenbait poema euskaratu genituen izen sakratuek har dezaketen forma zoragarrietatik zerbait ikasi ahal izateko. Bai, «*izen sakratuak falta dira*», idatzi zuen Hölderlinek. Guk ere, egia esateko, hitz poetikoari buruzko liburua idazterakoan, «izen sakratuak» ulertzeko ametsa baino gehiago, hitz poetiko *berriak* aurkitzeko eta *sortzeko* ametsa izan genuen.

Beste poeta handi batek, Rainer Maria Rilkek, zera esan zuen: «*Gesang ist Dasein*», edo *kantua izatea da*. Eta guk, oraindik ere, izatearen soinu soilari adi bizi nahi dugu, eta haren aldaera eta bilakaerei adi, eta kantuaren etxe abegikorrean bizi. Horretarako, hitz poetikoa non eta nola agertzen den arakatu nahi genuen lehenbizi, deskubritu nahi genuen zer ekarpen egin diezaiokeen gizadiari hitz poetikoaren bilaketa amaigabeak. Poeta askok zeru-lurretako natura berriei begira bilatu nahi izan dituzte aspalditik hitz poetiko ahaltsuak eta, gure asmoa, besteak beste, *kantu* horrek eraikitako «*etxolan*» bizitzea izan da beti, zeruaren eta lurraren artean. Hau da, munduaren barneko espazioan («*Weltinnenraum*») bizi nahi genuen, zeru-lurren *intimitatean* sortzen den *kantuan*. Zeren eta, kantuak, hitz poetikoak, ez baitu agian asmo handiagorik